

Eskubaloi-jokalari ermuararak Elgoibarren

Elgoibarko Sanlo E.K.T. senior taldean jokatzen dute Mireia Agudiña, Ariane Gayoso, Oihane Gómez, Maialen Gómez, Jone Ortega eta Leire Suárez ermuarrek. Horietako neska batzuk ia betidanik jardun dute Elgoibarren eta beste batzuk aurten heldu dira bertara, Ermuko Errotabarrin senior talderik ez delako oraindik sortu. Eurekin guztiekin solasaldia egin dugu Elgoibarko Olaizaga kiroldegian.

- Elgoibarrera duela urte dezente etorritakoak zarete batzuk eta etorri berriak beste batzuk, hala da?

Bai, horrela da.

- Eta Ermuan senior taldea osatuko balitz, bertara joango zinateke?

Hemen aspaldidanik dau-denak ez dira bueltatuko: hemen dute euren taldea eta konfiantza dute euren artean. Buelatuko balira, zero-tik hasi beharko lirateke. Aurten Elgoibarrera etorri direnen asmoa, berriz, Errotabarrira bueltatzea da. Baina asmoa da, besterik ez.

- Zer nolako garrantzia du zuen taldekideak ondo eza-gutzeak?

Elkar ezagututa, gauzak hobeto irtetzen dira. Badakizu besteak zer egingo duen eta horri esker taldearen jokoa hobetzen da. Horrez gain, gi-



Ermuko neskak Igor Lizarralde entrenatzailearekin.

ro ona izatea ezinbestekoa da, entrenamenduetan eta baita partiduetan ere.

- Eta entrenatzailearekin ere harreman ona izateak garrantzia du?

Jakina! Harremana ona ez bada ez zaude gustura eta jolastu dezakezun arren, azkenean taldea uztea da normalena. Batzui hori gertatu zaigu eta badakigu zer den.

Jone Ortega / 19 urte



“Anaitasuna ikastolan hasi nintzen eskubaloian jokatzen, 5. mailan. Handik Ermua taldera joan nintzen eta jubenilen lehen urtean Elgoibarrera etorri nintzen; hau nire 4. urtea da hemen. Bizkaiko selekzioan birritan jokatu nuen, kadete eta infantiletan, eta Euskadiko selekzioan behin bakarrik egon naiz. Biologiako 3. mailan nago eta etorkizunean lanean ikusten dut nire burua. Jokatzen jarraitu nahi dut, baina profesionala izatea, gustatuko litzaidakeen arren, badakit oso zaila dela, ia ezinezkoa”.

Zer dio entrenatzaileak?

“Maila pertsonalean ez dauka parekorik! Jokalari gisa, langilea eta azkarra da”.

Oihane Gómez / 18 urte



“11 urterekin hasi nintzen Ermua taldean eta, desegin zenean, Errotabarrira joan nintzen. Bertan jarraitzeko aukerarik ez dagoenez, Elgoibarrera etorri naiz duela hilabete t'erdia. Kadete lehen urtetik jubeniletako 2. urtera bitartean Euskadiko selekzioan egon naiz. Haur Hezkuntzako lehen urtean nago eta etorkizunean ikasketak bukatu eta eskubaloian jarraituko dudala uste dut, hobby moduan gutxienez. Ikusiko dugu zer datorren!”.

Zer dio entrenatzaileak?

“Oso-oso atezain ona da. Horrekin dena esanda dago”.

blush

Santiago Plaza 3, behea · ERMUA
943 10 82 42

PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

URDAITEGIA - CHARCUTERIA
MAYTE
Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA

Maialen Gómez / 17 urte



"Ikastolan hasi nintzen eskubaloian jokatzeko, 10 urte inguru nituenean. Ermuan egon nintzen eta Errotabarrin baita ere, eta duela 3 aste Elgoibarren hasi nintzen. Euskadiko selekzioan 4 urtez jokatu dut, txikitatik. Batxilergoko 2. mailan nago eta oraindik ez dut erabaki honen ondoren zer ikasiko dudana. Egia esan, ez dut ikusten nire burua 25 urterekin eskubaloian jokatzeko, honetan jarraitzea oso zaila da".

Zer dio entrenatzaileak?

"Zentral ona eta azkarra da. Aukerak ikusteko sekulako 'bista' du".

- Nesken eskubaloia mutilen eskubaloiarekin inoiz parekatuko dela uste duzue?

Inoiz ez. Aurreko asteburuan argi ikusi genuen gainera oso argi. 4 lagun etorri ziren gu ikustera eta mutilen partidura jendetza etorri zen. Klubetako zuzendaritzetan daudenek ere hori eragiten dute, mutilak hobeto zaintzen dituzte.

- Zeintzuk baldintza fisiko behar dira eskubaloian jolasteko?

Ez da atleta bat izan behar, baina apur bat zaindu behar zara. Urteak aurrera egin ahala gorputza garatzen joaten zara, indarra...

- Eta jokatzeko duzuenean zer duzue buruan?

Kontzentrazioa eta erreflexuak batez ere, baina horiek denborarekin garatzen dituzu. Funtsezkoa, berriz, eskubaloia gustuko izatea da ordu asko eskaini beharko zaizkio-

Mireia Agudiña / 21 urte



"8 edo 9 urterekin hasi nintzen Ermuan eta hau nire 6. urtea da Elgoibarren. Kadete eta jubeniletan Euskadiko selekzioan egon naiz. Gizarte Hezkuntza ikasten ari naiz eta etorkizunean Gizarte Hezkuntzan eta eskubaloian aritzea espero dut".

Zer dio entrenatzaileak?

"Oso langilea da, oso pibot ona bai erasoan eta baita defentsan ere".

lako: kiroldegia gure bigarren etxea da!

- Beste gauza batzuei denbora kentzen diezue eskubaloari eskaintzeko?

Bai, astean hirutan entrenatzen dugu (4 ordu eta erdi, guztira) eta asteburuetan partiduak izaten ditugu. Lagunei ezin diegu nahi beste denbora eskaini. Hala ere, ondo antolatzen bazara eta benetan kirol hau gustuko baduzu, gauza guztietarako ateratzen duzu tartetxo bat.

Dorleta Vidal

Ariane Gayoso / 18 urte



"12 urterekin hasi nintzen eskubaloian Ongarain. Handik Ermua taldera joan nintzen, jarraian Errotabarrin taldean jokatu nuen eta aurten Elgoibarrera etorri naiz. Kadeteko bi urteetan Euskadiko selekzioan jokatu nuen. Batxilergoko bigarren urtean nago eta datorren urtean Haur Hezkuntza ikasteko asmoa dut. Etorkizunean, eskubaloian ikusten dut nire burua, asko gustatzen zait".

Zer dio entrenatzaileak?

"Langilea da eta pibotean ondo moldatzen da".

Leire Suárez / 21 urte



"8 edo 9 urterekin hasi nintzen eskubaloian jokatzeko, eskolan lehenengo eta Ermua taldean gero. Handik Eibarko Arratera joan nintzen eta urtebete eman nuen eskubaloian. Horren ostean bi urte eman nituen futboleko jokatzeko eta aurten eskubaloira bueltatu naiz. Orain dela denbora mordo Bizkaiko selekzioan jokatu nuen bi urtez eta Euskadikoan urtebetez. Irakasle-ikasketak burutzen ari naiz eta etorkizunean horretan ikusten dut nire burua. Eskubaloian ere jarraitzeko asmoa dut, baina beste barietateak, gustatzen zaidalako".

Zer dio entrenatzaileak?

"Bi urteko geldialdiaren ostean, erritmoa hartzen doa. Pibot bezala ondo ibili daiteke".

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

san pelayo
clínica dental hartz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz García Arregui

943 17 04 04

NATURHOUSE
NUTRICION Y DIETETICA

"Adituak gara ondo elikatzen irakasten"

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikadura eta
Dietetikan Diplomata

Komentukua 1, behea
943 17 63 72

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

solozabal tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

DULCE
BEBE
PEQUE'S

0 eta 4 urte
bitarteko
umeentzako
moda eta
puerikultura

Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005